

ETXEGURA ETXEBIZITZA BURUJABETZAREN ALDEKO ELKARTEAREN ETA HERNANIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Hernanin, bi mila eta hogeita bosteko urriaren 8an

BERTARATUAK

Alde batetik: Maria Rosario Untzilla Atxotegi, xxxxxxxxx Nortasun Agiria duena, ETXEGURA Etxebizitza Burujabetzaren aldeko herritarren elkartearen izenean (G21830310 IFZ).

Bestetik: Xabier Lertxundi Asteasuinzarra Hernaniko Udaleko alkatea, HERNANIKO UDALAREN izenean (IFK: P2004300F) eta ordezkari gisa, Tokiko Gobernu Batzarrak 2025ko ekainaren 19an hitzarmen hau sinatzeko baimendu eta agindua.

Bi ordezkariak, beren izenean eta eskubidean, behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri dokumentu hau sinatzeko eta hitzarmen hau ondoko aurrekari hauen arabera betetzeko:

AURREKARIAK

Lehen.- Hernani Burujabe herri proiektua: 2021eko urriaren 1ean aurkeztu zen, herritar ororen bizi baldintzak hobetu eta eraldaketa sozialean zein prozesu demokratikoetan sakontzeko helburuarekin. Bide horretan, ezinbestekoa da komunitatearen garapena eta herritarren partaidetza sustatzea, elkarlanerako aukera berriak sortuz.

Etxebizitzaren auzian herrian lanean diharduten eragileak Hernani Burujaberaren etxebizitza sektorea garatzeko biltzen aritu dira 2022 eta 2023 urteetan zehar. 2024-ean Etxegura Etxebizitza Burujabetzaren aldeko elkarte sortu zuten eta Hernani Burujaberaren baitako mahai sektoriala eta plan sektoriala osatu zuten, sektorea Hernani Burujabeko planifikazio eta gobernu organoetan txertatuz eta udalarekin egingo den elkarlanaren nondik norakoak ezarri.

Hitzarmen honen bidez, etxebizitzaren eskubidea gauzatu ahal izateko ezinbesteko funtzioa duen eremu komunitarioa ordezkatzeko duen elkartearekin lana bermatuko da.

Bigarren.- Hitzarmen honen xedea bat dator Hernaniko Udalaren 2023-2025 Dirulaguntzen plan estrategikoan jasotako helburu estrategiko eta ekimen zehatzekin, zehazki:

-Hernaniarren bizi kalitate eta gizarte ongizate mailak igotzea. Arreta berezia jarrita zaurgarritasun egoeran dauden kolektibo bizi baldintzak hobetzea (1. lerro estrategikoa).

-Irabazi asmorik gabeko gizarte ekimena, erakundeekiko jardura koordinatua eta gizarte parte-hartze aktiboa sustatzea, emakumeen parte-hartze soziala handitzeko neurriak hartuz (1. lerro estrategikoa).

- Etxebizitzen alokairu soziala bultzatzea, herritarrei oro har, eta gazteei bereziki, etxebizitza alokatzeko laguntzak emanez (1. lerro estrategikoa)

- Herritar guztien bizi kalitatea eta ongizatea hobetzeko neurriak sustatzea, arreta berezia jarrita zaurgarritasun egoeran dauden kolektiboetan (6. lerro estrategikoa).

- Udalerriko jarrera ekintzailea dinamizatzea (6. lerro estrategikoa).

- Auzoetako bizigarritasun-baldintzak hobetzea (6. lerro estrategikoa).
- Udalerriko etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak hobetzea irisgarritasunari eta kutsadura akustikoari dagokienez. (6. lerro estrategikoa).

Hirugarrena.- Etxegura elkarteak garatzen dituen jarduerak udalaren eskumen zuzenetatik kanpo kokatzen dira, izan ere, udalerrian egiturazko funtzioetan ez da sartzen etxebizitza eskuratzeko bideragarritasun aukerak zuzenean kudeatzea, ezta etxebizitza eskubidearen inguruko aholkularitza espezifikoak ematea ere (Etxebizitzaren plangintza, programazioa eta kudeaketa 2/2016 14.7 art.). Hala ere, Etxeguraren ekimenek interes orokorra dute, izan ere, udalerrian etxebizitza sustatu, kolektibo zaugarrien beharrak identifikatu eta irtenbideak bilatzeko lana egiten du, herritarren beharrei erantzuteko tresna erangikor bat eskainiz. Udalak bere eskumenetatik haratago, horrelako ekimenekin lankidetzan aritzea aukera estrategikoa du, etxebizitza politiken eragina handitzeko eta tokiko eragileen parte hartzea bultzatzeko.

Hitzarmen honen bidez, udalerrian interes orokorrean kokatzen diren hainbat helburu lortu nahi dira, hala nola, etxebizitza sozialaren sustapena, alokairu merkatua aktibatzea eta etxebizitza kooperatiben hedapena bultzatzea. Horretarako, dirulaguntzaren bidez, Etxeguraren jardura babestu eta egonkortu nahi da, haren bitartez udalerrian erroka nagusietako bati-etxebizitzaren irisgarritasunari-erantzuteko. Hitzarmen honen justifikazioa interes orokorrean oinarritzen da, etxebizitza arloan neurri eraginkorrak garatzeko eta udalerrian kohesio soziala indartzeko tresna gisa.

Laugarrena.- Hernaniko Tokiko Gobernu Batzarrek 2025eko ekainaren 19an hitzarmen hau egiteko erabakia hartu du.

KLAUSULAK

1. Hitzarmenaren xedea eta eremua

Hitzarmen honen xedea da *Etxegura Etxebizitza Burujabetzaren aldeko elkarteak* Hernanin garatzen dituen interes orokorreko jarduerak babestea eta udalerrian etxebizitza eskubidea sustatzeko ekimenak indartzea. Hitzarmen honen bidez, udalerrian dauden etxebizitza errokei erantzuteko eta kolektibo zaugarrien etxebizitza eskubidea bermatzeko ekimenak bultzatzen dira, betiere udal jardueren osagarri moduan eta udalaren eskumenekin bat etorritik. Udal legearen arabera (2/2016 14.7 art.), etxebizitza alorrean Udalak duen eskumena ez da nahikoa behar hauei erantzuteko eta *Etxegurak*, Hernaniko udalaren eta herritarren ekimenen arteko lankidetzaren sustatuz, etxebizitza defentsa eta sustapena modu integratuean lantzeko oinarriak ezartzen ditu, hurrengo ekintzak eta jarduerak garatuz:

Hernanin etxebizitza duinen eta irisgarrien aldeko ekintza eraginkorrak garatzeko oinarriak ezartzen ditu:

1. Aholkularitza eta arreta zerbitzua kolektibo zaugarrienei.
 - 1.1. Kaleratze arriskuan dauden herritarrei arreta eta orientazioa eskaintzea (indarrean dauden babes neurriak, zerbitzu sozialekin konektatzea, epaketetarako aholkularitza).
 - 1.2. Etxebizitza eskubideari buruzko informazio saioak antolatzea herritarrentzat eta kolektibo zaugarrientzat.
 - 1.3. Harrera eta lehen arreta zerbitzua eskaintzea egoera zaugarrian dauden herritarrei.
2. Higienezin soziala: alternatibak aztertu eta martxan jartzea.
 - 2.1. Etxebizitza sozialen sustapena lantzea administrazioarekin eta jabeekin elkarlanean.
 - 2.2. Herritarrentzako espazio bat eskaintzea etxebizitza partekatua, alokairu soziala edo bestelako alternatibak aztertzea.
 - 2.3. Beste herrialde edo eskualdeetako ereduak aztertzea eta Hernanin aplikatzeko proposamenak egitea.

3. Babes publikoko etxebizitzaren eskaintza zabaltzea.
 - 3.1. Hernanin etxebizitza publikoen diagnostikoa egitea eta hutsik dauden babes ofizialeko etxebizitzak aktibatzearen prozesuak sustatzea.
 - 3.2. Etxebizitza duinak eskuratzeko politika publikoak sustatzea, alokairu sozialeko programak bultzatuz.
 - 3.3. Administrazioarekin elkarlanean babes publikoko etxebizitzaren eskaintza zabaltzeko aukerak aztertzea.
4. Etxe hutsen mobilizazioa.
 - 4.1. Etxebizitza hutsen jabeentzako foroa sortzea, haien etxeak erabilpena pasatzeko aukerak aurkeztuz eta abantailak aztertuz.
 - 4.2. Jabeentzako orientazio zerbitzua martxan jartzea, alokairu sozialeko programetan parte hartzea sustatzeko.
 - 4.3. Etxe hutsen errolda osatzea eta udalarekin elkarlanean neurriak aztertzea.
5. Etxebizitza alternatiboen garapena dinamizatzea.
 - 5.1. Egoera ahulean dauden kolektiboentzako bizitoki alternatiboak diseinatzea (gazteentzako, pertsona migranteentzat, adinekoentzako).
 - 5.2. Beste eskualde eta herrialdeetako eredu berritzaileak aztertzea eta Hernanirako aplikazio aukerak identifikatzea.
 - 5.3. Etxebizitza alternatiboak ezartzeko eredu berriak aztertzea eta proposatzea.
6. Etxebizitza kooperatiboaren sustapena.
 - 6.1. Hernaniko etxebizitza kooperatiboaren diagnostikoa egitea, lurzorua eta beharrak aztertuz.
 - 6.2. Kooperatiba bidezko bizitoki ereduak sustatzeko hitzaldiak eta formakuntzak antolatzea.
 - 6.3. Ereduaren garapena bultzatzeko finantzaketa aukera desberdinak aztertzea (banku etikoak, instituzio publikoak, elkarlan sareak)
7. Alokairu merkatua aktibatzea.
 - 7.1. Jabeekin lan egitea haien etxebizitzak alokairu sozialera bideratzeko.
 - 7.2. Alokairu-prezioen jarraipena egitea eta prezioen egonkortzea bultzatzeko neurriak proposatzea.
 - 7.3. Alokairu sozialerako diru laguntzak bultzatzeko eta zabaltzeko proposamenak egitea.
8. Higitzearen merkatuan dagoen arrazismoaren aurka borrokatzea.
 - 8.1. Etxebizitza alokairuan eta erosketan arrazakeria identifikatzeko diagnostikoa egitea.
 - 8.2. Zaintza eta esku-hartze protokoloak sortzea, diskriminazio kasuetan laguntza eta orientazioa emateko.
 - 8.3. Jabe eta higitzearen agentzientzako sentsibilizazio programak garatzea.

2. Hitzarmenaren iraupena

Lehen.- Hitzarmenaren epea 2025/01/01 – 2028/12/31 bitartekoa izango da.

Nolanahi ere, bi aldeetako batek hitzarmena bertan behera utzi nahiko balu, gutxienez 2 hilabete lehenago jakinarazi beharko dio beste sinatzaileari.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta aurrekontu kontsignazioa

Bigarren.- Hernaniko Udalak ETXEGURA Etxebizitza Burujabetzaren aldeko herritarren elkarteari 22.000 €-ko dirulaguntza emango dio urtero. Kopuru hori lau zatitan ordainduko da, otsaila, maiatza, abuztua eta azaroa hasieran, hain zuzen ere.

2025eko aurrekontu partida zenbakia:

1 1130.481.01.231.04 2025 DIRULAG.HITZARMENA.ETXEGURA ELKARTEA

Diru laguntza hau elkartearen honako gastuak ordaintzeko izango da:

GASTUAK	
Langile baten lanaldi erdia, %57,14 - (Dinamizazio komunitariorako lanak) (gizarte segurantzaren barne)	19.850€ euro/urtean
Ekimenak eta administrazio gastuak (materiala, espazioak, komunikazioa, etab...)	2.150€
DENERA	22.000,00€

4. Bidea, Burujabetzen aldeko herritarren elkartearen betebeharrak:

Hirugarrena.- ETXEGURA Etxebizitza Burujabetzaren aldeko herritarren elkarteak Hernaniko Udaletik jasotako diru-laguntza honako gastuei aurre egiteko erabiliko du: Etxebizitza Behatokia aholkularitza eta dinamizazio eramango duen pertsona laborala kontratatuzko, komunikazio ekintzak, sentsibilizazio kanpainak, herri ekimenak eta hitzaldiak egiteko, hala nola administrazio gastuak ordaintzeko.

Diru-laguntzaren xedea egitasmoa zabalago baten parte da, eta hitzarmen honen bidez proiektu horren zati bat babesten da ekonomikoki. ETXEGURA Etxebizitza Burujabetzaren aldeko elkarteak bere gain hartzen ditu gainerako jardura eta ekarpenak ere kontuan hartuko dira. Egitasmo osoaren urteko dedikazioa honela banatzen da:

Jardura	Aurreikusitako ordu kopurua	Udalaren dirulaguntzaren bidez estalitakoak	Elkartearen dedikazioa
Dinamizatzailearen lana	960 ordu (4 ordu/egun)	960 ordu	-
Herritarren aholkularitza eta arreta kolektibo zaurgarriak	120 ordu	80 ordu	40 ordu
Diagnostikoak eta proposamenak	80 ordu	40 ordu	40 ordu
Kanpainak eta sentsibilizazioa	100 ordu	60 ordu	40 ordu
Herri ekimenak, tailerrak eta dinamizazioa	100 ordu	60 ordu	40 ordu
Komunikazioa eta koordinazioa	60 ordu	40 ordu	20 ordu
GUZTIRA	1420 ordu	1240 ordu	180 ordu

Laugarrena.- ETXEGURA Etxebizitza Burujabetzaren aldeko herritarren elkartearen 2025eko ekintza planaren arabera ardurak ondorengoak izango dira: instituzioen jardunetik kanpo gelditzen diren zerbitzuak emateaz arduratuko da: sozializazio kanpainak, aholkularitza eta ahalduntzea kolektibo

zaugarrienei, eta pedagogia egitea herrian, herritar masa indartsu bat eratzeko merkatu libreari aurre egingo diona. Horrela, puntu hauetan esku-hartzen saiatuko da:

- Etxebizitza duin eta egoki baterako eskubidearen defentsa egitea.
- Etxebizitzaren espekulazioaren eta merkantilizazioaren aurka egitea.
- Espazio komunitarioen aktibazioa egitea eta hausnarketa kolektiboa sustatzea.
- Kolektibo zaugarrien ahotsak kontuan izatea.
- Ekimen sozialekin harremana izatea eta sare bat osatzea.

Elkarteak hitzarmen bidez jasotzen duen dirulaguntzari esker, proiektu zabal baten jarduera esparruari babesa eskaintzen zaio. Elkarteak, bere baliabide propioekin eta bolondresen ekarpenarekin estaliko du. Elkarteak, beraz, udalarekin lankidetzan, egitasmo hau egonkortzeko eta zabaltzeko apustua egiten du.

Gainera, ordu dedikazio hauek kontrol fitxa baten bidez jasoko dira, egindako jardueren eta lan-denboraren jarraipen zuzena bermatzeko. Fitxa horrek, jarduera bakoitzaren izaera, denbora eta arduraduna jasoko ditu, hainbat adierazle ere, eta Udalarekin partekatu da. Horrela, diruz lagundutako jardueraren ebaluazio objektiboa burutuko da, kalitazteko jarraipena bermatuz.

Bosgarrena.- ETXEGURA Etxebizitza Burujabetzaren aldeko herritarren elkartek antolatzen dituen jardueri dagokionez, kontuan hartuko du Hernaniko Udalaren Euskararen Erabilera Plana eta Hernaniko herriaren errealitate soziolinguistikoa. Beraz, ETXEGURA Etxebizitza Burujabetzaren aldeko elkartearen eta Udalaren arteko ahozko nahiz idatzizko harremanak euskaraz izango dira eta elkartek antolatzen dituen jarduerak herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dituzte.

Horrenbestez, diruz lagundutako jarduera herritar multzo euskaldunari zuzenduta dagoenean (adingabeak, gazteak, ikastetxeak eta arnasmune izendatutako auzoetako herritarrak) ahozko eta idatzizko komunikazioa (izen-emate orri, idatzi, publizitate, iragarki, ohar, sare-sozialetan eta web-orrian jarritako informazio eta jarduerari lotutako gainerako idatzizko euskarriak...) euskaraz izango da.

Jarduera herritar orori zuzendua denean, jarduera horretan euskara ulertzen ez duten parte-hartzaileak badaude eta komunikazioa bermatzeko beste hizkuntza batzuk erabili behar badira, idatzizko komunikazioan (izen-emate orri, idatzi, publizitate, iragarki, ohar, sare-sozialetan eta web-orrian jarritako informazio eta jarduerari lotutako gainerako idatzizko euskarriak...) lehentasuna izango du euskarak. Ahozko komunikazioan, ETXEGURA Etxebizitza Burujabetzaren aldeko elkartek baliabideak jarriko ditu herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko. Horretarako Euskara Zerbitzuan eskatuko du aholkularitza eta honek emango dizkio jarraibideak.

Seigarrena.- ETXEGURA Etxebizitza Burujabetzaren aldeko elkartek, urtero ekintzen memoria (ekintza bakoitzaren hizkuntzen erabilera barne) eta finantzazio memoria biltzen dituen txostena egingo du.

Zazpigarrena.- ETXEGURA Etxebizitza Burujabetzaren aldeko elkartek urtero, irailaren hasieran, hurrengo ikasturterako prestatuta daukan ekintzen programa aurkeztuko du.

Zortzigarrena.- ETXEGURA Etxebizitza Burujabetzaren aldeko elkartek argitaratutako dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatuko dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, ordezkartza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta identitateen aniztasuna.

Bederatzigarrena.- ETXEGURA Etxebizitza Burujabetzaren aldeko elkartek jarraipen bilera bat burutuko du etxebizitza sailarekin hiru hilabetero. Bilera jarraipen espazio bat izango da eta argibide teknikoak bertan landuko dira.

5. Dirulaguntzaren justifikazioa

Hamargarrena.- Dirulaguntza epe honetarako zuritu beharko da: urtea bukatu eta hilabete batera beranduenez, urte bakoitzeko urtarrilaren 31rako.

Hamaikagarrena.- Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da diru-laguntza zuritzeko:

- Diruz lagundutako jardueraren memoria, ondoko gutxieneko edukiarekin: Proiektuaren azalpena; diru-laguntza zer helburutarako eman den; egindako jarduerak, ezarritako helburuak eta lortutako emaitzak. Emaitzak adierazleen bidez azalduko dira. Adierazleak kualitatiboak edota kuantitatiboak izan daitezke. Kuantitatiboak: ekimen, jardunaldi... kopurua; hartutako kontsulta kopurua... Kualitatiboak: dinamina zehatzetan (zehaztu) emandako urratsak... Ekintza bakoitzaren hizkuntza ere zehaztuko da, hitzarmen honen bosgarren artikuluan jasotakoari jarraiki.
- Egindako jardueren kostua justifikatzeko balantze ekonomikoa: Diru sarreraren eta gastuen balantze laburtua; egindako gastuen zerrenda sailkatua, kontzeptuen arabera antolatuta eta guztizkoak zehaztuta. Zehaztuta izango ditu, orobat, hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketa data; fakturak edo pareko frogak balioa duten agiriak; eta, hala badagokio, ordainketaren egiaztatagiriak; diruz lagundutako jardueraren finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- Zerga betebeharren ziurtagiriak: Foru Ogasuna (eta Gizarte Segurantzak hala badagokio).
- Hala badagokio, aplikatu ez diren soberakinen itzulketaren eta haietatik etorritako interesen ordainketa gutuna.

6. Aplikatu beharreko araubide juridikoa

Hamabigarrena.- Dirulaguntza hau arautuko du, dirulaguntza emateko irizpen honetan ezarritakoak ez ezik, Dirulaguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) eta lege horretako araudia onartzeko Errege Dekretuan (887/2006 Errege Dekretua, 2006ko uztailaren 21ekoa) ezarritakoak, bai eta Udal Dirulaguntzen araudiak.

7. Onuradunaren aitortpena

Hamahirugarrena.- Onuradunak aitortzen du ez dagokiola dirulaguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan dirulaguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak dauden debekuetako bat ere.

Zehatzago esan, erakunde onuradunak egiaztatzen du egunean dagoela zerga betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta ez duela behartze bidean itzultze prozedurengatik ordaintzeke dagoen diru-kopururik. Era berean, aitortzen du ez dagoela sartuta behartze bideko kobrantzako prozeduretan, Udalarekin edo haren erakundeekin egindako zorrak direla-eta.

8. Helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

Hamalagarrena.- Dirulaguntza hau bateragarri izango da edozein administraziook edo erakunde publiko nahiz pribatuak helburu berarekin emandako dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin nahiz baliabideekin. Betiere, aintzat hartu beharko da dirulaguntza edo laguntza horiei dagokien arauetan ezarritakoa. Hala ere, diru-laguntzen Lege Orokorreko 19.3 artikuluari jarraiki, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa (bai bakarrik, bai beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera) ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

9. Kontabilitate liburu eta erregistroak, dirulaguntza egoki justifikatzea bermatzeko eta finantzak kontrolatzeko eskatuak.

Hamabosgarrena.- Onuradunak jardueraren gastu eta sarrera guztiak kontabilizatu beharko ditu. Kontabilitate liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako agiriak izan beharko ditu, behar bezala ikuskatuak, aplikatzekoa zaion merkataritzari eta sektoreari buruzko legedian xedatua den moduan. Justifikatzeko agiriak gorde beharko ditu, egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko, lau urtez.

Era berean, laguntza eman beharko die Udal Administrazioiko organoei, eta haiek eskatutako agiri guztiak eskuratu beharko dizkie; berdin jokatu beharko du Europako Batasuneko arauen arabera finantza kontroleko eginkizunak dituzten organoekin ere.

10. Hitzarmena ez betetzea

Hamaseigarrena.- Hitzarmen honetan jasotakoa bete ezean, hitzarmena bertan behera geratuko da, eta Udalak dagozkion neurriak hartuko ditu.

Hamazazpigarrena.- Hitzarmen honen inguruko interpretazio zalantzak Udalak ebatziko ditu eta hitzarmena aplikatzearen ondorioz bestelako eztabaidarik sortzen baldin bada, horiek Donostiako Auzitegiek eta Epaitegiek ebatziko dituzte.

Agiri hau irakurri ondoren, eta ados gaudela adierazteko, bi ordezkariak sinatu egin dute goian adierazitako lekuan eta egunean.

11. Izaera pertsonaleko datuen tratamendua

Hemezortzigarrena.- Behean sinatzen duten bi aldeen artean ezarritako lankidetzarako konpromiso honek beregain hartuko ditu, oro har, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko araudiak, jasotzen dituen betebeharrak, eta EAEren eremuan indarrean dagoen legedia bereziki.

Aurretik adierazitakoa kontuan izanik, ETXEGURA Etxebizitza Burujabetzaren aldeko elkarteak akordioan lankidetzarako definitutako edozein jarduketa burutuz gero, gai hauetan zehaztutako printzipioak bete beharko dituzte, batez ere datuen kalitate, proportzionaltasun, baimen, informazio eta konfidentzialtasunaren inguruko printzipioak, baita araudietan xedetutako derrigorrezko segurtasun neurriak ere.

12. Atxikitako dokumentuak

Espediente honi ondorengo dokumentuak atxikituko zaizkio:

- ETXEGURA Etxebizitza Burujabetzaren aldeko elkaratearen 2024/2025 ikasturteko plangintza.
- ETXEGURA Etxebizitza Burujabetzaren aldeko elkaratearen estatutuak
- Etxebizitza saileko teknikariaren txostena.
- Zerga betebeharen ziurtagiriak: Ogasuna eta Gizarte Segurantzza.
- Banku kontuaren titulartasuna akreditatzen duen agiria.

Eta dokumentu honetan jasotakoarekin eta erabakitakoarekin ados daudela erakusteko, bi aldeek agiri honen bi ale sinatu dituzte adierazitako tokian eta egunean. Aldeetako bakoitzak honen ale bat gordeko du.

Hernanin, 2025eko urriaren 8an

Udalaren aldetik:

ETXEGURA Etxebizitza Burujabetzaren aldeko elkaratearen aldetik:

Alkateak:
Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

Elkarteko Lehendakariak:
Maria Rosario Untzilla Atxotegi